

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Kontuan izanik gu ingeniari informatikoak, ekonomialariak, EAZn graduatuak eta Ingeleseko eta Frantseseko irakasleak garela, plataforma diseinatzeko, garatzeko eta sortzeko, funtsak lortzeko eta enpresa modu egokian kudeatzeko gaitasuna dugula, hizkuntzetan adituak diren pertsona gehiagoren, hots irakasleen eta filologoen, beharra dugu. Ez soilik haien ideiak gure proiektuan txertatzeko baizik eta metodo didaktikoak modu egokian erabiltzeko eta gure ikasleak izango direnei ahalik eta zerbitzu garatuena eta sendoena eskaintzeko.

Bestalde, hainbat argitaletxeekin akordioak egin beharko genituzke haien liburuetan azaltzen diren azalpen zein ariketak gure plataforman integartzeko eta gure proiektuak hezkuntzan adituak direnen babesa izan dezan. Bidenabar, sendotasuna eta segurtasuna transmitituko genuke.

Guretzako ezinbestekoak izango dira arestian aipatutako irakasle, filologo eta argitaletxeak. Gure proiektuaren muina hezkuntza da eta horretarako premiazoak ditugu esparru horretan adituak direnen elkarlana. Ikasketa plana garatzeko, gure hizkuntza irakasleen eta kontaktatuko ditugun filologo, pedagogo, argitaletxe... arteko lan txukunak, gogorak eta praktikoak nahi dugun eraginkortasuna izan dezan.